

**EKAITZ ARTEAN EZI!**

Gau zurbillaren kolkoan zure atsa dabil;  
orma ertzean putz, aize negarrean irri,  
zur'atsaren atsa doart gei-betean dindil.

Len ementxe ziñan bizi, neur'biotz-auzoan;  
gaur ixillik ta zorige, bakan ta arrigarri,  
bakarrik zabiltz alderrai miñaren egoan.

Tantaiak aragi bage, billois, loi daukazuz,  
iruntzaren ikutuak dardarti jarriak;  
ezerez biurtuko yatzuz aizeak astinduz.

Bide dagiste alaikor aurrera jotean;  
ezpai-ariak ariman ni larri estutzen,  
ta negar-tantak daurkidaz barriz itzultzean.

Mamua dirudi ziur, ekaitz aize miñak;  
zu jagiaz batera lez mamuak asperen;  
zu al zara miazkatzen garrasi samiñak?

Illaren kaskamotza azkar—norantza?— jutean,  
ekaitz-jasak muturra daust albora zimurtzen.  
Beingoz al zaitut urtua len-lengo lurpean?

Egun batez, bai, barriro zara biurtuko  
lurrera; baiña aldi ori oraindik ezta asi.  
Ez al dozu ariñegi era baltz jarriko?

Aldia ba-doa jgaroaz, azia da erain.  
Iraiz baten da iñartuko, urpean zarbo lez;  
zagoz, bitartean, zagoz, mamu iduri bikain.

Maite zaitut! Ene, maite! Baiña ez naizu izu.  
Betorkit bakarrik zure biotz-oiu ezti,  
argiaren izpitan, ai!, ta ez ekaitz usu.

**OINAZEPEAN**

Lanbrotsu gaua;  
baltz gu gabiltzan bidea,  
ke illunak mende  
dauka kiratsez betea;  
zaurien zetaz  
daroagu loi mintzea,  
min etsiaren  
zornaz arima barnea.

Egun luzezko  
iskillu tzarren burruka,  
lerkai ta berun  
eten bageko eztanda...  
Uri-goiena  
egiñik ia erreka,  
anai odolez  
gorri da lotu Artxanda.

Eta... ba-goaz,  
erakaitz, illun altzotik,  
sabel azpiko  
erra gainditu eziñik  
oraindiño be  
etsai dogula orpotik:  
ba-goaz bidez,  
noraezean, tristerik.

Zagoz or, uri  
eder, gaur ezain, kiratsez;  
lenera zaite  
beargin ta zut, ainbestez;